

ESKAERAK IZAPIDETZEKO JARRAIBIDEAK

Lan-poltsen Atariko eskaintzen eskaerak izapidetzerakoan kontuan hartu beharreko puntuak; bereziki, **plaza askoko eskaintzak direnean**:

1. GORDE ZIRRIBORROA:

Eskaeraren zirriborro bat gorde daiteke, goian eskuinaldean dagoen "**GORDE ZIRRIBORROA**" botoia sakatuz. Aipatu botoia sakatuz gero, ordurarte hautatutako lehentasunak gordeko dira, aldeztatik hautatutako plazak berriz ordenatu behar ez izateko. "**ESKAERA**"-ra sartzerakoan, horri buruzko mezu bat agertuko da:

Eskaintzan inskribatzeko eskaera

ESKAITZA: 2025.09.04

⚠ ESKAERA AMAITZEKO, "ESKATU" botoia sakatu behar duzu, eta, ondoren, eskaera sinatu.

⚠ Informazioa galdu ez dadin, gorde hautatutako lehentasunak "GORDE ZIRRIBORROA" botoia sakatuz.

GORDE ZIRRIBORROA

Izendapena	Destinoko Zentroa	Zuzkidura mota	Berariazko osagarria	Lehentasuna	Hasiera data / Aurreikusitako data
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/336)	AUKERAK, AG. VASCA REINSECCIÓN SOCIAL - SS.CC.	HUTSIK - Izendapena	III-B	1	2025/09/24
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/321)	EUSKO JAURLARITZA-VITORIA GASTEIZKO EGOITZA	HUTSIK - Izendapena	III-C	2	2025/09/24

Zirriborroa gorde ondoren, berrespen-mezu bat agertuko zaizu goialdean, ondo gorde dela adierazteko:

Eskaintzan inskribatzeko eskaera

✓ ZIRRIBORROA ondo gorde da. GOGORATU: hau zirriborro bat besterik ez da. Eskaera amaitzeko, "Eskatu" botoia sakatu behar duzu, eta, ondoren, eskaera sinatu.

✕

ESKAITZA: 2025.09.04

⚠ ESKAERA AMAITZEKO, "ESKATU" botoia sakatu behar duzu, eta, ondoren, eskaera sinatu.

⚠ Informazioa galdu ez dadin, gorde hautatutako lehentasunak "GORDE ZIRRIBORROA" botoia sakatuz.

GORDE ZIRRIBORROA

Izendapena	Destinoko Zentroa	Zuzkidura mota	Berariazko osagarria	Lehentasuna	Hasiera data / Aurreikusitako data
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/336)	AUKERAK, AG. VASCA REINSECCIÓN SOCIAL - SS.CC.	HUTSIK - Izendapena	III-B	1	2025/09/24

Kontuz! Zirriborro bat gordetzea ez da eskaera izapidetzea. Izapide guztiak osatu eta amaitzeko, "ESKATU" botoia sakatu behar da, eta, ondoren, "SINATU" botoia. Ziurtagiri digitalaren bidez eskabidea sinatu ondoren, eskaera erregistratuta geratuko da.

Ohartarazpen hori pantailaren goialdean finkatuta dago, eta zirriborroa gorde izanaren berrespen mezuan azaltzen da ere (aurreko irudian ikusten den bezala):

Eskaintzan inskribatzeko eskaera

ESKAINTZA: 2025.09.04

⚠ ESKAERA AMAITZEKO, "ESKATU" botoia sakatu behar duzu, eta, ondoren, eskaera sinatu.

⚠ Informazioa galdu ez dadin, gorde hautatutako lehentasunak "GORDE ZIRRIBORROA" botoia sakatu.

GORDE ZIRRIBORROA

Izendapena	Destinoko Zentroa	Zuzkidura mota	Berariazko osagarria	Lehentasuna	Hasiera data / Aurreikusitako data
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/336)	AUKERAK, AG. VASCA REINSERCIÓN SOCIAL - SS.CC.	HUTSIK - Izendapena	III-B	1	2025/09/24
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/321)	EUSKO JAURLARITZA-VITORIA GASTEIZKO EGOITZA	HUTSIK - Izendapena	III-C	2	2025/09/24

Eskaera ezeztatzen baduzu, baina alde aurretik zirriborroa gorde baduzu, egindako hautaketa eta ordenazioa azalduko zaizu berriro eskaerara sartzerakoan. Zentzu horretan, "EZEZTATU" botoia sakatzean, leiho hau agertuko da:

Baiezta

?

Zirriborrorik gorde ez baduzu, eskaeran sartutako datuak galdu egingo dira. Jarraitu nahi duzu?

JARRAITU EZEZTATU

2. PLAZAK HAUTATZEA ETA ORDENATZEA:

EZIN DA ZENBAKIRIK ERREPIKATU ORDENATZERA KOAN, hau da, ezin zaio lehentasun-zenbaki bera ezarri bi plaza desberdini. Hori eginez gero, ezin izango duzu zirriborroa gorde, ezta eskaera amaitu ere, akatsa zuzendu ezean.

Bi plaza desberdini zenbaki bera esleitzen badiozu, eta **"GORDE ZIRRIBORROA"** botoia sakatu; mezu bat agertuko da, zein zenbaki erreplikatu den adierazten duena. Halaber, mezuak ohartarazten du, zirriborroa gorde ahal izateko, akatsa zuzendu behar duzula:

Eskaintzan inskribatzeko eskaera

Hautatutako bi plazak edo gehiagok hurrenkera-zenbaki bera dute: 2. ZIRRIBORROA GORDETZEKO, akatsa zuzendu behar duzu.

ESKAINTZA: 2025.09.04

ESKAERA AMAITZEKO, "ESKATU" botoia sakatu behar duzu, eta, ondoren, eskaera sinatu.

Informazioa galdu ez dadin, gorde hautatutako lehentasunak "GORDE ZIRRIBORROA" botoia sakatuz.

GORDE ZIRRIBORROA

Izendapena	Destinoko Zentroa	Zuzkidura mota	Berariazko osagarria	Lehentasuna	Hasiera data / Aurreikusitako data
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/336)	AUKERAK, AG. VASCA REINSECCIÓN SOCIAL - SS.CC.	HUTSIK - Izendapena	III-B	1	2025/09/24
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/321)	EUSKO JAURLARITZA-VITORIA GASTEIZKO EGOITZA	HUTSIK - Izendapena	III-C	2	2025/09/24
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/232)	EUSKO JAURLARITZA-VITORIA GASTEIZKO EGOITZA	HUTSIK - Izendapena	III-C	2	2025/09/24
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/232)	EUSKO JAURLARITZA-VITORIA GASTEIZKO EGOITZA	HUTSIK - Izendapena	III-C	2	2025/09/24

Bi plaza desberdini zenbaki bera esleitu eta "**ESKATU**" botoia sakatuz gero, errepikatutako zenbakia zein den adierazten duen errore-mezua agertuko da, eskaera amaitzeko akatsa zuzendu behar dela esaten duena:

Eskaintzan inskribatzeko eskaera

Hurrengo erroreak sortu dira:

- Lehentasunak
 - Hautatutako bi plazak edo gehiagok hurrenkera-zenbaki bera dute: 2. ESKAERA AMAITZEKO, akatsa zuzendu behar duzu.

ESKAINTZA: 2025.09.04

ESKAERA AMAITZEKO, "ESKATU" botoia sakatu behar duzu, eta, ondoren, eskaera sinatu.

Informazioa galdu ez dadin, gorde hautatutako lehentasunak "GORDE ZIRRIBORROA" botoia sakatuz.

GORDE ZIRRIBORROA

Izendapena	Destinoko Zentroa	Zuzkidura mota	Berariazko osagarria	Lehentasuna	Hasiera data / Aurreikusitako data
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/336)	AUKERAK, AG. VASCA REINSECCIÓN	HUTSIK - Izendapena	III-B	1	2025/09/24

ORDENATZERAKOAN ZENBAKIREN BAT "SALTATZEA" BAIMENDUTA DAGO, bai zirriborrea gordetzeko, bai eskaera izapidetzeko.

Lehentasun-zenbakiak esleitzerakoan, ez baduzu jarraikako zenbakitzea errespetatzen, eta "**GORDE ZIRRIBORROA**" botoia sakatzen baduzu, plazak jarraian antolatu ez direla adierazten duen mezu bat agertuko zaizu. Mezuak zein zenbaki falta den zehaztuko du, eta zirriborrea berrikusteko edo egindako hautaketarekin jarraitzeko aukera emango du:

Baiezatu

?

Plazak ez dira jarraian antolatu. Zenbaki hauek falta dira: 3,4. Hala ere, zehaztutako lehentasun-ordenarekin gorde daiteke ZIRRIBORROA. Berrikusi nahi duzu, edo zehaztutako aukeraketarekin jarraitu?

BERRIKUSI

JARRAITU

Eskaera izapidetzeko **"ESKATU"** botoia sakatzean, agertzen den mezuak adierazten du, plazak jarraian antolatu ez badituzu ere, eskaera ageri den hurrenkerarekin izapidetu ahal izango duzula. Horrela, plazen antolaketa berrikusteko edo eskaera amaitzeko aukera emango dizu:

Baieztatu

Plazak ez dira jarraian antolatu. Zenbaki hauek falta dira: 3,4. Hala ere, zehaztutako lehentasun-ordenarekin burutu daiteke ESKAERA. Eskabidea berrikusi nahi duzu, edo egindako aukeraketarekin amaitu nahi duzu eskaera?

BERRIKUSI

AMAITU

Kontuz! Plaza bati ez bazaio lehentasun-zenbakirik esleitzen, EZ hautatutzat joko da.

3. ESKAERAREN IZAPIDETZAREN BAIEZTAPENA:

Eskaera behar bezala erregistratu dela ziurtatzeko, **"NIRE LAN-ESKAINTZAK"** atalera joan zaitezke, eta **"INDARREAN DAUDEN ESKAINTZAK"** eremuan eskaeraren data eta ordua agertu beharko dira, honela:

INDARREAN DAUDEN ESKAINTZAK

HISTORIKOA

Administrazio orokorra

ESKAINTZA: 2025.09.04

Eskaeraren amaiera: 13:00

Egoera: Zabalik

ESKAERA BERRIKUSI

Eskaera-data: 2025/09/10 11:12

Izendapena	Destinoko Zentroa	Zuzkidura mota	Berariazko osagarria	Lehentasuna	Hasiera data / Aurreikusitako data
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/336)	AUKERAK, AG. VASCA REINSECCIÓN SOCIAL - SS.CC.	HUTSIK - Izendapena	III-B	1	2025/09/24
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/232)	EUSKO JAURLARITZA-VITORIA GASTEIZKO EGOITZA	HUTSIK - Izendapena	III-C	4	2025/09/24
AHOLKULARI JURIDIKOA (510060/298)	EUSKO JAURLARITZA-VITORIA GASTEIZKO EGOITZA	HUTSIK - Izendapena	III-B	5	2025/09/24

Eskabidea aurkezpen-epetik kanpo kontsultatu nahi baduzu, **"NIRE KUDEAKETAK"** atalera jo beharko duzu, izapidetutako eskaintza-eskaeren espedienteak agertzen diren lekura.

Garrantzitsua: Eskaera erregistratu ondoren, eta eskaerak aurkezteko aurreikusitako epearen barruan, **"NIRE LAN-ESKAINTZAK"** atalean (**"INDARREAN DAUDEN ESKAINTZAK"** eremuan), **"ESKAERA BERRIKUSI"** botoia sakatu ahalko duzu; egindako eskaera kontsultatu, aldatu edo baliogabetzeko.